

Udal talde politikoaren iritzia



GETXO, ERRESPECTUAREKIKO KONPROMISOA

Aurten ere, LGTBIQ+ Nazioarteko Harrotasun Eguna den ekainaren 28aren harira, Getxok nabarmendu nahi du giza eskubideen errespetuarekin, berdintasunarekin eta aniztasunarekin duen konpromisoa.

EAJ-PNV berdintasunarekin eta aniztasunarekin konprometituta dago eta hala adierazi du Imanol Pradales EAEko lehendakariak, Eusko Jaurlaritza berriaren funtsezko oinarri gisa nabarmendu baitira hasi berri den ibilbidean.

Bidezkoagoa den gizartea eraikitzea oinarritzeko ardatza da eta, hortaz, gure lehentasuna da bai Euskadin, bai Getxon.

Getxoko EAJk duela urtebete baino gehiago aurkeztutako hauteskunde-programan nahiz gure udal-gobernuaren legegintzaldi-planean "BERDINTASU-

NA, ANIZTASUNA ETA ALIANTZAK" izeneko ardatza jaso dugu, eta hauexek ditu erronka nagusitzat: benetako berdintasun eraginkorra lortzea eta emakumeak nahiz LGTBIQ+ pertsonak herritar osotzat hartzea eta ahaldundu daitezen bultzatzea.

Azken egunotan, gaiari lotutako zenbait jarduera izan ditugu, hala nola monologo bat, non aniztasun-eskubidea umorea erabiliz jorratu baita, eta Getxo Harro jaialdia, non adin guztietarako jarduerak antolatu baitira afektibitate- nahiz sexu-askatasuna eta genero-identitatea aldarrikatzeko.

Ekainaren 28a (ostirala) Harrotasunaren Nazioarteko Eguna dela-eta, Getxoko Udalak nabarmendu nahi du sexu- eta genero-aniztasunaz harro dagoen udalerria lortzeko egindako lana, bai eta horren

gaineko sentsibilizazioa bultzatu ere.

Guztion ardura da duintasuna eta justizia oinarri hartuta pertsona eta kolektibo guztien eskubideak bermatu daitezela aldarrikatzea.

"Ekainaren 28an, LGTBI kolektiboaren Sexu Askapenaren eta Harrotasunaren Nazioarteko Eguna den aldetik, berretsi nahi dugu aniztasunean oinarritutako bizikidetzarekin eta eskubideekin konprometituta gaudela; halaber, ospatu nahi ditugu kolektibo horren eskubideak eta askatasunak aitortzeko egindako aurrerapausoak. Egun hau, ospakizuna ez ezik, egindako bidearen eta benetako berdintasuna lortzeko oraindik egiteke dagoen lanaren gogorazpena ere bada". Horixe da Eusko Jaurlaritzako Berdindu zerbitzuak ekainaren 28aren harira hartutako konpromisoa eta Getxoko EAJ-PNV taldeak bere egin duena.



95 PARTZELA ALOKAIUAN SAN NIKOLASEKO APARKALEKUAN

Azkenik, Algortako herritarrok 95 partzela izango ditugu eskuragarri San Nikolas plazaren azpiko aparkalekuan; 2019an eraiki zen eta ia erabili barik egon da orain arte.

Partzelen alokairua prezio sozialetan eskainiko zaizkie inguruko herritarrei eta hori gure alderdiak eta gobernu-taldeak 2024ko aurrekonturako lortutako akordioaren emaitza da. Hala, gure alderdiak nahiz herritarrek urte askotan egindako eskaerei erantzun zaien eta erabili ahaliko dira Algortako erdigunean dauden aparkaleku-partzelak.

95 partzela horiez gain, beste 242 partzela daude Manuel Gainza aparkalekuan, eta aipatzekoa da horren eraikuntza Alderdi Popularraren eta gobernu-taldearen arteko akordioaren emaitza ere izan zela.

PP taldeko kideok konpromisoa hartu dugu Getxoko auzo bakoitzean aparkaleku gehiago gaitzeko eta, aurrekontu-akordioaren bidez, finantzaketa lortu da dagoeneko Areetako Mesedeetako kalean lurpeko aparkalekua eraikitzeko, bai eta Getxoko udaletxearen ondoan dauden epaitegietako aparkalekuaren azpian aparkaleku bat diseinatzeko ere.



EAJK ETA PSEK HAPO UDA BETEAN ETA JENDEARI BIZKARRA EMANEZ ONARTU NAHI DU

EAJK eta PSEK osatutako gobernu-taldeak uztailearen 16an hasi eta uztailearen 26an amaituko den HAPOren onarpen-prozesuaren berri eman dio oposizioari. Prozesu hori oportetako une batean egiten da, dokumentazio zabalaz aztertzeko behar den denborarik gabe, eta herritarrei HAPO berriaren parte-hartzea oztatzen saiatuz.

- HAPO 15 urteko atzerapenarekin izapidetzen ari da.
- Gobernu taldeak 3 hilabete bakarrik eman zizkien interesatuei alegazioak aurkezteko.

- Gobernu-taldeak 18 hilabete hartu ditu oraindik erantzun ez diren alegazio horiek aztertzeko.

- Gobernu-taldearen asmoa da alderdi politikoen, eragile sozialak eta auzotarrak HAPO "berria" aztertzea (2000 alegazio inguruko erantzunekin) hilabete baino gutxiagoko epean (beraiek 18 hilabete prestatzeko izan dituztenez).

- Gobernu-taldeak ezohiko osoko bilkura egin nahi du uztailearen 26an, Aixerrotako paellen ondorengo egunean eta San Inazio jaiak hasi aurreko egunean, zalantzarik gabe opakutasuna eta herritarren desmobilizazioa bilatuz.

Salatzen dugu ere, 2022ko urriaren 19az geroztik (HAPOren hasierako onarpena) ez EAJK ez PSEK ez dutela behin ere EH Bildurengana jo elkar ulertzeko puntuak bilatzeko.

Hau da EAJK eta PSEK, PPren babesarekin, diseinatutako prozesua.

- Uztaileak 1. HAPO berria entregatu alderdi politikoei.
- Uztaileak 5. HAPOren erredakzio-taldearekin bilera.
- Uztaileak 12. Erredakzio-taldearekin bilera, zalantzak argitzeko.

- Uztaileak 16. HAPOko batzordearen deialdia. Une honetan, HAPOa publikoa izango da.
- Uztaileak 19. HAPOko batzorde berezia.
- Uztaileak 26. HAPO onartzeko ezohiko osoko bilkura.

Argi geratzen da prozesu honek eztabaida eta herritarren parte-hartzea eragotzi nahi duela. Uda garaian babesten da aurrera ateratzeko espekulazioari atek zabaltzen dizkion plana eta honen helburua geratzen zaizkigun berdeguneetan eraikitzea da.

Info + getxo.ehbildu.eus



EKAINAREN 28AN, SEXU- ETA GENERO-ANIZTASUNAZ HARRO



HAPO HONI EZ

Ostiral honetan, ekainaren 28an, LGTBI Harrotasunaren eta Sexu Askapenaren Nazioarteko Eguna da. Eskubideen aldarrikapena ikusarazteko, oroitzeko, eta urteko egun guztietan aniztasun guztiekiko izan beharreko errespetua aldarrikatzeko eguna. PSE-EE taldeko kideok uste dugu sentsibilizatzen eta lan egiten jarraitu behar dugula egunero pertsona askok jasaten duten gorrotoa eta diskriminazioa desagerrarazteko. Horixe da Alderdi Sozialistak kudeatzen duen Berdintasun Zerbitzuak antolatutako jardueren helburua. Horien bitartez, LGTBIQ+ kolektiboko pertsonen ba-

nakako nahiz taldeko bizipenak ikusarazi nahi dira haien zaugarritasun-egoeraren berri emateko; ildo beretik, lan egin nahi dugu aske bizi eta maitatzeko dituzten eskubideak bermatzeko. Getxo irekia, plurala eta anitza izan behar dela uste duten pertsona guztiei eskatu nahi diegu egunero egin dezaten horren aldarrikapena, gure udalerraren bertsio onena ateratzeko. Hala egin behar dugu pertsona guztiek ulertu arte sexu- eta genero-aniztasuna gizartea aberasten duen balioa dela, LGTBIQ+ kolektiboko pertsonen bizitzak aukerez josita eta indarkeriarik gabe egon arte.

PNV-PSEK HAPOa onesteko egutegia jarri dute martxan. Uztailean egingo den fase berriak kanpo utziko ditu alegazioak aurkeztu dituztenak, bozketa baino soilik hamar egun lehenago jakinaraziko baitzaie alegazioen erantzuna eta horien balizko txertatzea. Uztailearen 26an bozkatu da eta baliteke orduantxe hasiera batean onestea. Hortaz, kaltetutako askok ez dute erantzuteko aukerarik izango.